

## ANTXIÑAKO FOTOGRAFIXIA



## Arrueneko lehenengo presia

**S**imon Arrue alegittarrak baimena eskatu otsan 1885ian Oñatiko udalari Uraingo torriaren aldamentetik xoiaren errekan **presa bat jaso ahal izateko**. Kontzejuaren erantzuna izan zuen kontu hori etzala bere ardurapekua eta eskabidia egokionari egiteko. Dakitzuenez, **Urain torria Zubiaurre izenez be ezaguketan da** eta Iturritxo plazatxotik hurrian dago. Urte batzuetan Garai enpresiaaren ekonomatua kokatu zuen bertan.

Jo eben Ximonek tokaiten zuen lekura eta eskuratu otsain presiori moldaitzeko baimena. Zertarako bihar ete zuen? Ba, hantxe onduan, aizkorak, atxurak eta beste erremintta batzuk egiteko sortu barri eben **lantegiko errueda hidraulikuari eragiteko**. Lehentxuago leku horretan **La Trinidad** izeneko **poxpolo-fabrika** bat euki euen Juan Candaudepe eta Oñatibia aitta-semiak. Izen industrial hori Arruetarren lantegixak be ebali eben.

Lehenengo presia izan zala bota dogu tituluan. Izan be, Arrueneko fabrikiaren premiñak etziran, nunbait, Uraingo ur-salto txiki horregaz ase. Horregatik, jabiak 1890ian **bigarren presa bat eta malatua egiteko asmuari heldu otsan**. Murgizubieta edo **Poparretxeneko zubitik metro batzuk goratuago** eraiki zuen presia, Olabarrieta (Olaran) erreka gaiñian. Hantxe dago orainddiok, testigu lez, San Martin azpitan. Dana dala, etzan samurra izan buruketia, proiektuari eragozpen bat baiño gehiago jarri xakon-eta. Batzuen ustez, kaltegarria zuen inguruko bizilagunentzat errekiari hainbeste ur kentzeia, sikute-denporan batez be.

Fotografixiari erreparau ezker, **inguru hori zenbateraiño kanbixau dan** konturatuko zara: Oñati **errekia** ezta orain hortik pasaitten, 1970eko hamarkadan **desbideratu** egin euelako, gerora jaso zuen etxe-poligono barri batentzako lur-saillak irabazteko; **presatuaren** eta torretxe kontrako **malatuaren** azkenengo **arrastuak be orduan ezkutauko ziran**; ezkerraldian agiri diran **Kale Barriko etxeostiak eztaokoi ixa antzik**, gaur egunekuakin konparauta; horko eraikin gehixenak barriztau edota ordezkatu egin ziran; eta **Urain berak be**, neurri batian kanpoko itxuria mantenidu arren, **aldaketa sakonak euki zittuan barrutik**.

Ehun urte dakon argazki hau Belen Ibarrondok eskuratu dosku eta ezta kigu nork ataratakua dan. Argibidiak, berriz, Tomas Igartua eta Xabier Zelaiari zor dostegu. Milla esker danoiri!